




# SL-Gi 3004

## Otsaurteko artzain bideak

*5,1 Km / 1 h 45 min*

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




### Profila
Perfil

Track altuera ( m ) / Altura Track ( m )

Distantzia ( km ) | Distancia ( km )

Luzera | Longitud
5,1 km

Desnibela | Desnivel
+205 m / -216 m

### MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 2 | 1 h 45 min |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke**<br>El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Bide mailakatua edo zoru irregularra**<br>Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 1 a 3 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena<br>Continuidad de sendero | Norabide aldaketa<br>Cambio de dirección | Norabide okerra<br>Dirección errónea |
|---|---|---|

### + INFO

Praktika onen dekalogoa
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
Trackak eskuragarri
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Monolitoa**
Monolito

**Aisia-lekua**
Area recreativa

## SL-Gi 3004
### Otsaurteko artzain bideak

Apirila eta azaroa bitartean, artaldeak eta behorrak egoten dira Garagartzako txabolen inguruan. Garagartzako saroia da ibilbide honetako gune nagusia. Oskarbi dagoenean hango ikuspegia ikusgarria da. Noski, halako bide batean ezinbestekoa da benta bat. Otsaurten dagoena ezaguna da eta, makina bat istorio kontatuko zizkioten artzainek elkarri, artaldeekin egonaldi luzeak egin aurretik eta ondoren. Oraindik ere, Ultzamako bidetik artzainak aziendekin igotzen dira, ardiek eta behorrek udan bazka dezaten.

Entre abril y noviembre, suele haber numerosos rebaños y yeguas alrededor de las chabolas de Garagartza, que es el punto central de esta ruta. Cuando el cielo está despejado la vista es impresionante. A buen seguro que en Otsaurte los pastores se han contado infinidad de historias, antes y después de realizar largas estancias con sus rebaños. Los pastores, todavía, suben con el ganado por el camino de Ultzama, para que la ovejas y yeguas pasten en verano.

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



GARAGARTZAKO HAITZAK: Hiru haitzek osatzen dute multzoa: Bikuñaitz (816m), Zabalaitz (866m) eta Naparaitz (859m). Hiruetatik garaienak dauka postontzia gailurrean. Garagartza gaineko haitzak ezin egokiagoak dira artaldeak babesteko: tokiko ohiko hareharriaren ordez, kareharrizko arroken gainean eraikitakoak dira txabolak, eta iturria ere badago. Datuak datu, paisaiaren edertasuna da gune honen ezaugarri nagusia.

PEÑA DE GARAGARTZA : El conjunto lo forman tres peñas: Bikuñaitz (816m), Zabalaitz (866m) y Naparaitz (859m). De las tres la más alta es la que posee el buzón en su cima. Las rocas del alto de Garagartza son las más idóneas para proteger los rebaños: en lugar de la arenisca de la zona, las chozas están construidas encima de piedra caliza, y además hay una fuente. Pero, por encima de los datos, la belleza del paisaje es su característica principal.

b



ULTZAMAKO BIDEA: Ultzamako bidetik Aizkorri-Aratzeko mendi-lerroaren handitasuna eta edertasuna ikusteko aukera paregabea dago. Bide horren inguruan hainbat jarduera dira aipagarri: oinezkoez gain, jakina; ehiztari asko aritzen dira han uso garaian batez ere, urrian eta azaroan; baina, artzainak ere, bertatik igotzen dira aziendekin, ardiekin eta behorrekin, udako goiko bazka aprobetxa dezaten. Beundako aisialekua ere ez dago oso urrun.

CAMINO DE ULTZAMA: Desde el camino de Ultzama se pueden observar perfectamente la belleza y grandiosidad de la cordillera de Aizkorri-Aratz. Se realizan muchas actividades reseñables alrededor de ese camino: además del senderismo, por supuesto; suele haber muchos cazadores, sobre todo en la época de las palomas, en octubre y noviembre; pero los pastores también suben por allí con el ganado, ovejas y yeguas, para que aprovechen los pastos de altura. El área recreativa de Beunda no queda lejos.

c



ABILLETAKO ZISTA: Eraikuntza sakratuen aitzindariak dira gisa honetako multzo megalitikoak. Ale eder honek bere horretan dirau, mendeen joanaren gainetik. Hala ere, Mendebaldeko Piriniotan gutxi ezagutzen diren monumentu mota dira. Berorien artean ere oso desberdinak izan daitezke: tumuluarekin edo gabe, tamaina eta material desberdinak, etab. Dirudienez, kasu batzuetan, lurralde erreferente moduan eraikitzen ziren.

CISTA DE ABILLETA: Este tipo de complejos megalíticos son los antecesores de las construcciones sacras. Este hermoso ejemplo sigue en pie, por encima del paso de los siglos. Sin embargo, son un tipo de monumento poco conocido en el Pirineo Occidental. Entre ellos pueden ser de muy diversos tipos: con o sin túmulo, de tamaños y materiales distintos, etc. Por lo que parece, en algunos casos, se construían como referentes territoriales.

arazi
OÑATI dabilen herria
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa